

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Maiatzak 23  
Ostirala  
Alea: 778  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## MERTXE ETXEBERRIA BILDU HERNANIKO BURUA

### "Instituzioetatik bota gaituztenez kanpotik egingo dugu lana eta horretarako herritarren babesu behar dugu"

■ Udaleko lanean Ezker Abertzaleak presentzia izango duela eta jarraipena egingo duela dio Etxeberriak ■ Zenbait Alderdik eskatu duten "Boto utilak" egoera luzatuko duela uste du eta bide berriak bilatu behar direla.

**MERTXE Etxeberria** da Bildu Hernani Plataformako burua. Azken lau urteotan Hernaniko Alkate izan da Euskal Herritarrok Batasuna eta Sozialista Abertzaleok taldearekin. Partidua legez kanporatu eta Bildu Hernani hauteskundeetatik kanpora utzi du Auzitegi Gorenak. Mertxe Etxeberriak lanean segitzeko asmoa azaldu du, eta herritarren babesu eskatu du "denon artean" aurrera egiteko.

■ Orain lau urte Alkate aukeratu zintzuten gehiengo osoz, eta gaur egun hauteskundeetatik kanpora utzi zaituztete. Zein balorazio?

Gu ez gaituzte bizilagunek bidali, espainiar Estatuak baizik eta alde horretatik lasai gaude. Hogeitabost urtean legearen barruan egon den Erakunde batetatik aurkeztu gara hauteskundeetara eta hemendik aurrera inoiz ezinago dugula inor ordezkatu esaten dute, inongo sententziarik gabe; alegia, inor errudun izan gabe ilegalak garela. Honek ez du ez hanka eta ez buru. Hala ere, bagenkiak Madrilgo agintariak mozorroa kenduko zutela, eta horiek muinean neofaxistak dira.

■ Lanean jarraitzeko asmoa azaldu duzue. Nola?

Guk egingo dugu modu bat kanpotik bada ere Udaletxean egoteko. Udalak egiten duen lanaren aurrean presentzia izaten saiatuko gara, eta herriaren partizipazioaren alde saiatuko gara. Gure apustua ezin da politikari gutxi batzuen esku utzi, herri



Mertxe Etxeberria Bildu Hernaniko zerrendaburua.

proiektua denon ardura baita. Lehen ere gauza asko sortu ditu herriak instituzioak kontra izan dituenean, ikastolak adibidez eta filosofia eta lan egiteko modu horri heldu behar diogu.

■ Botorik eskatu ezin duzu eskatu. Zer eskatzen diezu herritarrei?

Zer gerta litekeen ondo jabetzko. Batzuek "boto utila" eskatzen ari dira. Aurreko hauteskundeetan ere eskatu zuten eta gure jende askok eman zien. Ordutik ikusi da zertarako balio zuen: hemen ez da ezertan aurreratu eta gobernu bat daukagu gure eskubideak ere bermatu ezin dituena. Egunkaria itxi, kul-

turgintzan egurra eman, alderdiak legez kanpo utzi... denetik egin digute eta Eusko Jaurlaritzak kondennatu beste ezer ez du egiten. Boto util horrek egoera luzatu besterik ez luke egingo eta guztiar artean bide berriak bilatu beste erremediorik ez daukagu.

■ Alkate bazina zein helburu zenituzke Hernanin? Gure asmoa herritarren parte hartzea bultzatzen segitza da

eta bide hori perfektziona. Hirigintzan, etxebizitzaz politikari garrantzia berezia ematen diogu, eta kontseilu bat sortu behar dela uste dugu, egoera aztertu eta oraingo arazoaren aurrean bide bat bilatzeko. Garapen Agentzia martxan jarri behar da eta eskualdeko plan estrategiko bat egin. Aktibitate ekonomikoan, proiektu asko ditugu: dendarentzat teknikari bat kontratatzea, nekazaritzan politika propio bat aztertzea... Kulturan, balio anitzeko espazio baten beharra bete nahi dugu; Ongintzan, Diputazioarekin negoziatu beharra dago Zaharren Egoitza haunditzeko eta abar. □

#### MERTXE ETXEBERRIA

Portuko Xantinea baserrian jaioa da eta gaur egun Lizeaga auzoan bizi da. Lanbidez gizarte laguntzailea da, 55 urte ditu, ezkondua da eta bi umeren ama.

Legegintzaldian Hernaniko Alkate izan da Euskal Herritarrok eta Sozialista Abertzaleak taldeetatik. Bera da Hernanik izan duen emakumezko Alkate bakarra, eta datozen hauteskundeetarako emakumezko zerrenda buru bakarra ere bai. Ezker Abertzaleak herritik lan egiteko formulak bilatu beharko dituela dio eta abertzaleek lan haundiak egin behar dutela "sasi demokrazia honek zordizkigun eskubideak lortu eta lapurtu digun Udal erreprezentazioa berreskuratzeko".

#### BILDU HERNANIREN PROGRAMA (LABURTUTA)

##### SEKTORE EKONOMIKOA

Proposatzen dugun neurrietako bat Garapen eta Turismo Agentzia osatzen bukatzea da, helburu hauetan: garapen ekonomikoaren jasangarritasuna sustatzea, jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea hirugarren sektorea eta turismoa bultzatzuz, finantzazio iturriak atzematea, garapen soziala bilatzea eta inguruko bizi kalitatea hobetzea.

##### HEZKUNTZA

Euskal Kurrikuluma eta euskal kulturan oinarritutako hezkuntza bultzatuko da Hernaniko eskoletan. 0-3 etapan eskaintza publikoa sustatu eta zabaltzeko compromisoa hartzten dugu. Eskolak euskalduntzeko neurriak hartuko ditugu.

##### KULTURA

Adin eta kultur sektore guztiak era-gileak elkarteko ahalegina egingo dugu. Taldeei lokalak utzi eta egokitu, hitzarmen bidez lotuaz elkarrenganako loturak. Kultur Ekintzakoa azpiegiturak sortu.

##### EUSKERA

Euskeraren normalizazioan urrats eraginkorak ematea izango da gure lan ilo nagusietako bat. Herri mugimendutik eta herri eragileek sortutako ekimenak garatu, Udalak partehartze aktiboa eta dinamikoa izanik. Udaleko aurrekontuen % 3 euskerari dedicatzea.

##### HERRI ANTOLAKETA

Arau Subsidiarioak berritzeko erre-dakzioarekin jarraitzea eta dokumentuaren aprobaiziora arte jarraipena egitea. Eusko Jaurlaritzarekin batean Galarretan jarduera ekonomikoen gunearen garapena bultzatzea. Etxebizitzaz politikan, etxe hutsak alokatzea bultzako dugu eta beheko solairuko lokalak etxebizitzaz moduan erabiltzea aztertu. Etxebizitzaz kontseilua sortzea, eta Udalari dagozkion Promozio berrietako % 10a alokatzeko etxebizitzaz publikoetan inbertitzea.

##### HIRUGARREN ADINA

Zaharren egoitza lehengo AEKKo lokal aldera haunditzeko obrak exijitu Diputazioari. Helduak euren ingurunean bizi-tzeko ibilbidea zehaztu: etxez etxez laguntza, tele alarmen laguntza, eguneko zentroko plazak haunditu...

##### KIROLAK

Igerilekuari kaleak eranstea, erdigunean frontoi estali bat jartzea eta instalazio eta eraikuntzen mantenimendu egokia egitea.

## AMEGAR

Etxe tresnak  
Altzariak



Elektrogailuak  
TB-Bideoak-HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

## AMARI

IRRATIA  
ITSASKETAK  
FRESKO ETA  
IZOTZUA

Kardaberaz 34  
Tel.: 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 Hernani

aukera ezazu zure lanbidea Cebanc-Cdearekin

### Ostalaritza eta Turismoa

JATETXE-ARLOA  
SUKALDARITZA (EM)  
BIDAI AGENTZIAK  
OSTATU-ARLOA  
JATETXE ETA TABERNAKO ZERBITZUAK (EM)  
TURISMO-INFORMAZIO ETA MERKATARITZA

ESCUOLA SUPERIOR DE  
HOSTELERIA DE GIPIZKOA

INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

INFORMATIKA-APLIKAZIOEN GARAPENA

AENOR  
CERTIFIED  
ER-0842/2002  
ER-0846/2002

Erdi esta Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

MERKATARITZA eta Sukaldaritzako HASTAPEN PROFESIONALA

Berio Pasalekua, 50 • Donostia 20.018 • Tel.: 943 316 900 • Faxa: 943 316 482

### Merkataritza eta Marketina

NAZIOARTEKO MERKATARITZA  
MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETINA  
MERKATARITZA (EM)

### Informatika

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK A ETA D EREDUAK  
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (EM)  
IDAZKARITZA

### Administrazioa

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK A ETA D EREDUAK  
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (EM)  
IDAZKARITZA

BERTARAINOKO AUTOBUSA

Cebanc-Cdea  
FORMACION PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA

## Hasi dira Agustina ingurua berritzeko obrak

■ Konbentua berritu, etxebizitzak, hotela eta ofizinak eta establezimendu komertzialak dijoaz ■ 2005ko udazkenerako bukatuta egotea espero dute.

AGUSTINA eta Zinkoenea ingurua berritzeko obrak atzo goizean hasi ziren, konbentu azpikaldeko etxeak boteaz. Inguru guztia erabat aldatuko duen proiektuak, batetik, Agustinetako konbentua berriku du, eta bestetik konplexu haundi bat joango da: 60 etxe inguru, hotela, ofizinak eta establezimendu komertzialak, Zinkoenea oinekoentzat jarri eta abar. Urbanizazio proiektua aprobatu berria da eta 2 milioi euro inguru kostako da. Obrak aurrena konbentu azpikaldean izango dira eta



Eskabadora Agustina azpikaldeko etxeak botatzen atzo.

hori aurreratua dagoenean dean, hemendik urte t'erdira, hasiko dira Zinkoenean al-gutxi gora behera. □

## Aralarrek dio ezker abertzaleko jendeak elkarritzeta, suetena eta autodeterminazioa botatu litzakeela

■ Hernaniko Aralarrek elkartasuna adierazi dio Bildu Hernaniri ■ Jarraitzaileei libre utzi die Udalerako bota nori eman "ezkertzaletasun eta abertzalesunetik abiatuta".

HERNANIKO Aralar alderdiak adierazi du hauteskunde hauetan ezin izan duela herrian aurkeztu, "garatz bidean harrapatu" dituelako. Kronikara bidalitako prentsa komunikatu-an, Aralarrek elkartasun osoa adierazi die "epaile atzerritarrek antideomokratikoki legez kango utzi dituzten talde guztie, eta bereziki Bildu Hernani ezker

abertzaleko beste taldeari".

Bestalde, Aralarrek bere jarraitzaileei esan die, Udaletxerako bota bakotzari kontzientziak agintzen dionari emateko "beti ere ezkertzaletasun eta abertzalesunetik abiatuta"

Aralarrek Diputaziorako bota eskatu dio ezker abertzaleko jendeari: "Aralarrekin ados

dagoen ezker abertzaleko jendeak badu zer botatu igandean: Elkarritzeta, suetena, autodeterminazioa". Aralarrek nabarmendu du Donostialdeko ze-rerenda buru Iñaki Irazabalbeitia dijuela, Elhuyarreko kide dena, bosgarren postuan Txillardegi, ezker abertzaleko militante ezaguna eta seigarren postuan Ernesto Merino hernaniarra. □

## Giza katea gaur

ETXERAT eta Askatasunak giza katea deitu dute gaur arratsalderako Gotzon Aranbururen egoera salatzeko. Aranburu apirilak 26 ezkerotik gose greban dago eta egarri greba ere egin zuen "espetxe zuzendariek presoen suntsipena bilatzen baitu". Aranburu osasun egoera delikatuan dago eta egoera salatzeko gaur 20:00etan giza katea egingo da Gudarien plazan. Etxeratek adierazi duenez, Hernanitik 600 sinadura bidali dituzte Zaintza Epaitegira eta espetxe zuzendaria. □

## PELOTA

### Herriarteko bihar

HERRIARTEKO Pelota txapelketa martxan da eta Hernaniko taldeak bueltako partiduak jokatuko ditu bihar kirolegian. Hernaniarrek 3-0 irabazi zieten aurreko ostiralean Anoetari, hiru partidu eder jokatuta. Kanporaketa esku-ra dute Felix Zabalaren mutilek eta litekeena da prestazialeak titularren bati jai ematea. Partiduak 18:00etan hasiko dira, larunbatean, kirolegian. □

## JASOTA BEZALA

### DATOZEN HAUTESKUNDEEN

#### AURREAN

Zutikek ez du inorentzat bereziki botorik eskatuko (edo ez bozkatzea). Nafarroan izan ezik, Batzarreren barruan gaudelako, Euskal Herri osoan jarrera berdina hartu dugu, izan ere gauzak nahiko nahiak datoz...

Gertatutako ilegalizazioak, BILDU Hernani plataforma barne delarik; Estatuaren neurri errepresibo berrien itzala; mehatxu eta zenbait alderdi politikoetako jendearen bizitzak arriskuan jarraitza, ezberdina dena ez onartzea... askatasunaren bideak gehiago

mugatzen darama, elkarbizitza eta giza eskubideak zapuztea eta okertzea.

Arazoak, sustraien, besteak beste bi arlo ditu. Alde batetik kanpotik datorrena, hau da, Estatuko alderdi nagusienak ez dutela inondik inora onartzen Euskal gizarteak demokratikoki duen ahalmena bere etorkizuna jorratzeko eta erabakitzeko. Bestalde, batukoa, hau da, Euskal Herria politika baztertzaileak menperatzen dute alde askotatik; dauden identitate nazional ezberdin sakonak ez onartuz eta hori eguneroko elkarbizitzaren aniztasunari uko

egitea da. Ahaztu gabe etorkinen gorakadak eskatzen digun jarrera irekia eta errespetuz bideratzea.

Lanean eta borrokan jarraitu beharra dago; elkarritzeta, proposamenak eta akordioak lortze-ko, inor baztertu gabe. Gizarte mugimendua, alderdi politikoak presionatu behar ditu, demokratisa, askatasuna, justizia soziala, emakumea eta gizonezkoen benetako berdintasuna, elkarbizitza e.a. sakontzeko. Bazter guztietatik badago zer egina.

Agurtza Zubero eta Joxe Elizondo 'Niko'  
(Hernaniko Zutik-en izenean)

## HITZ BITAN

### MENDIRIZ MENDI

**Mendi bizikleta irteera Orbaizeta ingurura.** Mendiriz Mendik mendi bizikleta irteera antolatu du maiatzaren 31 eta ekainaren 1erako. Bizikleta martxa ekainaren 1ean izango da, autobusez igo Ollokiko lepora (1.326 metro) eta Orbaizetara jeistea. Irteera bezperan egingo da, 17:30etan Atsegindigitik, eta Casa Iriarte aterpean egingo da lo. Bidaiaren prezioa 32 euro da eta izen ematea maiatzaren 30a baino lehen egin behar da.

### TXANTXANGORRI

**Iñigo Esnalek irabazi du Arrantza Txapelketa.** Txantxangorri elkarteko 33garren Arrantza Txapelketa egin zen joan den igandean, Urumean. Hogeita bi gaztek hartu zuten parte eta hiru amurri harrapatu zituzten. Irabazlea Iñigo Esnal izan da 450 gramoko amurraia harrapatuta. Bigarren Joseba Zabalegi gelditu da 225 gramoko amurraia harrapatuta eta hirugarren Asier Arrizabalaga 200 gramoko amurriarekin. Arrizabalaga izan zen elkarteko lehen sozioa eta urdaiazpiko bat izan zuen sari.

**Cabarcenora bidaia maiatzaren 31ean.** Txantxangorrik hileko azken egunean egingo du Cabarcenoko parkera bidaia eta lakuan arrantza txapelketa. 10-15 urte arteko gazzteenetan da eta izen ematea hilaren 30a baino lehen egin behar da Txantxangorrin. Prezioa 10 euro.

### ERRUGBIA

**Alebinen torneo gaur.** Hernaniko neska-mutil alebinak Landaren entrenatzen aritu dira aste osoan. Gaur torneo dute, arratsaldeko 16:30etan Landaren. Bestalde, Hernaniko errugbilari alebinen taldeak partidua du bihar Landaren Ordiziaren kontra, 10:30etan.

### SAN JOAN KANTAITA

**Entsaioak gaur hasiko dira.** San Joan Kantaitak gaur hasiko ditu dantza entsaioak datozen festei begira. Entsaioak irekiak izango dira. Gaur 20:30etan Biterin.

### BERTSOLARITZA

**Eskolarteko Txapelketako saioa gaur.** Eskolarteko Bertsolari Txapelketako saioa da garu Eskoriatzan eta Hernaniko 2 talde aterako dira txikien mailan: Jon Hidalgo, Aritz Otaegi, Amaia Otxotorena, eta Oier Iurramendi batetik eta Arnaitz Lasarte, Iñaki Otxotorena, Ane Lujanbio eta Aritz Garin bestetik. Helduen mailan ariko dira Hernaniko bertsolako Unai eta Beñat Gaztelumendi anaiak.

### BONBA MEHATXA

**Txirrita kalea itxita.** Ertzaintzak Hernaniko Batzokian bonba jarri zutela deia jaso zuen atzo goiz partean. Txirrita kalea itxita eduki zuen Ertzaintzak, baina, bonbarik ez zegoela ikusita kalea ireki zuten ostera ere.

### BERRIAK ELKARTEA

**Jolas Parkea gaur Plaza Berrin.** Berriak elkartearak jolas parkea antolatu du gaur Umeentzat, 17:00etik 20:00etara.

### MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

**Mertxe Etxeberriari elkarritzeta gaur.** Molotoff Irratiak Mertxe Etxeberria Hernaniko Alkateari elkarritzeta egingo dio gaur, goizeko 11:15etan. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anonimoak: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberry Urbia 7  
☎ 943 552941
- Gauetza: Iturrealde Usurbil. Poligono 13, 9  
☎ 943 363395

## LAN ESKAINIZA

**TOPAGUNEAK EKIPO INFORMATIKOETAKO TEKNIKARIA behar du Lan Baldintzak:** - Urtebeteko kontratu luzagarria egun osoko dedikazioaz. - Lan lekua, Andoainen.

Informazio gehiagorako: Dobera Euskera Elkartera (Larramendi 11) edo deitu 943 33 27 99 ra.

## IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: 943 55 67 06

## ESKOLA KIROLA

## ASTEBURUKO PARTIDUA

Bihar futbola eta arrauna izango dituzte Hernaniko kirolari gazteek. Benjamin guztiek Zubipen dituzte futbol partiduak, 09:15etan. Alebin guztiek arrauna egingo dute Elorrabin; zita 10:00etan dute.